


4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak



Neska hau Txano Gorritxo da. Beti darama amonak egindako txano gorria.



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa

- Irudiak eta letrak



Egun batean, Txano Gorritxok amonari janari-saski bat eraman zion, amak horrela agindu ziolako.



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak



Bidean, amonarentzat loreak batzen geratu zen eta orduan...



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak



Otsoarekin topo egin zuen eta otsoak lehiaketa bat proposatu zion: nor heldu lehenago amonaren etxera!



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak



Otsoa iritsi zen lehena amonaren etxera. Otsoa amona jateko prest sartu zen, baina amona korrika batean armairuan ezkutatu zen, gero otsoak amonaren arropa jantzi eta ohean sartu zen.



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak




Handik gutxira Txano Gorritxo iritsi zen eta atea jo zuen.



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa

- Irudiak eta letrak



Txano Gorritxo sartu egin zen eta arraro xamar aurkitu
zuen amona.

4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa



- Irudiak eta letrak



Otsoa Txano Gorritxo jaten saiatu zen, baina Txano Gorritxok salto egin eta ihes egin zuen.



4.2. Gaiaren lanketa

> Txano Gorritxo: ipuinaren lanketa

- Irudiak eta letrak



Une hartantxe, juxtu-juxtu, ehiztari bat pasatu zen etxearen aurretik eta oihuak entzutean etxean sartu zen. Otsaoak, beldur-beldur eginda, ziztu bizian ospa egin zuen. Orduetik aurrera sekula ere ez zen basoan itzuli.